

KOSTUEN EGITURA

Kostuen egiturari dagokionez, gure enpresak bi motatako kostu nagusi ditu: kostu finkoak eta aldakorak. Kostu finkoen artean ordenagailuak eta telefonoak, langileen soldatak, lonjaren alokailua, makineriaren mantenimendua eta garraio-enpresari ordaindu beharrekoa dira nagusi. Kostu mosta hau ez dago enpresak ekoizten dituen produktu kopuruaren menpe, kostu aldakorak, aldiz, bai. Beraz, kostu aldakor nagusiak dutxak ekoizteko beharrezkoak diren materialak osatzen dituzte, hala nola altzairu herdoilgaitza, bozgorailuak eta mikrotxipak.

Ekoizpen kostuei dagokionez, gure helburu nagusia eskala ekonomikoa lortzea da, kostu txikiak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, gure produktuaren prezioa jaitsi eta gure bezero potentzialentzat eskuragarriagoa eta erakargarriagoa izateko.

Hala ere, aipatu behar da enpresak ez duela planteatzen azken produktuaren kalitatea arriskatzea kostuak murrizte aldera, produktuaren balioaren zati bat kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioari dagokiola uste baitugu.

